

EUSKAL SANTUAK**XABIER'TAR FRANTZISKO SANTUA**

Euskal santu eta doatsuen talde au, Xabier'ko Frantzisko, mixiolari ospetsuaren bizitzaz amaituko dogu.

Frantzisko'ren aita, Joan Jasso, Naparroako Legebiltzarreko lendakari izan zan, eta bere ama Maria, Baztan'go Azpikueta errian jaioa. Euskaldun utsa, beraz.

Bost seme-alaba sortu ebezan: Magdalena, Ana, Mikel, Joan eta Frantzisko, txikiena, 1506n. urtean jaioa.

Frantzisko'k, bere gaztelu-etxearen izena artu eban abizentzat, orduko oitura zanez.

Mikel eta Joan agramont aldeko abertzale sutsuak ziran, eta Nafarroa'ko askatasunaren alde azkeneraino jokatu eben. Frantzisko bere anaiei laguntzeko txikiegia izanik, Paris'ko bidea artu eban, jakinduriaren bidez, bere etxe jausiaren izena barriz jasotzeko.

FRANTZISKO PARIS'EN

Paris'ko ikastexe nagusian Loiola'ko Iñigo euskalduna ezagutu eban, eta gerran arerioak izan arren, atzerrian euskal-odolak bultzaturik, biak lagun aundiak egin ziran. Iñigo'k sarritan esaten eutsan Napar gartsuari: "Xabier, eta zer ardura gizonari mundu guztia irabazita be, bere arima galtzen ba'dau?".

Frantzisko, beti gazte zintzoa izanik, Jesusen berba oneik santu izateraino jaso eben.

XABIER MIXIOLARI

Portugal'ko erregeak, India, Ozeania eta Japonia'ko lurraldeak Kristo'ren federa ekarteko, mixiolariak eskatu eutsazan Aita Santuari.

Loiola'ko Iñigo'k Erroman, bere lagunik aundiena Xabier izendatu eban lan onetarako.

Xabier'en amar urteko mixiolari lanak, zelan lerro gixitan sartu?

1.540. Lisboa'tik India'ra doa Xabier itsasoz. Amairu illebeteko itsaso-aldi luzea.

1.541-1,543. India'ko lurralde zabaletan mixiolari: Goa, Kotxin, Malabar, Zeilan...

1.543-1,547. Ozeania'ko ugarteetan Jesusen Barri-Ona zabaltzen. Malaka, Anboino, Ternate, Moroan ugarteak...

1.548. India'ra itzuli ango gauzak eta arazoak zuzendu, eta Japonia'ko joanera prestatzeko.

1.549-1.551. Iru urte Japonia'n: Kangosima'n, Nangasaki'n, Meako'n eta beste erri askotan Jesus Salbatzaillaren berri-ona emoten.

1.552. Barriz India'ra Txina'ko joera atontzeko.

1.552. Gabonillak 3, Txina'ko ate-aurrean, Santzian ugarte bakartian, ilegin zan, Xabier bere amak euskeraz erakutsitako otoitzak ezpaiñetan zituala.

JAVIER ALA XABIER?

Bai Frantzisko'k berak, baita bere etxeakoak *BETI* "XABIER" idazten eben gazteluaren izena adierazteko... antxiñako dokumentuak aztertuz, izen orrek aldaketak izan ditu: Etxaberri, Txaberri, Xaberri eta azkenez Xabier... Ilunberri'tik Ilunbier aldatu zan legez. Onetan ez da zalantzarik.

XABIER EUSKALDUNA

Frantzisko'k bere gaztelu-etxean, bere amagaz eta ango morroi euskaldunakaz euskeraz egiten ebala, gauza jakiña da.

Baiña berak diño argi eta garbi India'tik bialdutako eskutitz batean: "Ni orain Komori'n lurraldean, malabaren artean, Kristoren barri-ona zabaltzen nabil, baiña nik eurei ezin ulertu, ezta eurak neuri be, euren izkuntza malabarkoa dalako, eta *nirea bizkaikoa*" (Orduan Ego-Euskalerrri osoari Bizkaia deitzen eutsoen).

1.933.n urtean Aita Pier Lhande, Zuberoa'ko jesulagun ospetsua, Goa-raiño joan zen, Xabier'en erlikiak, erdi momia egiñak, aztertzeraz, eta ikusi ondoren onelako au idatzi eban: "Xabier'en burua 'V' baten antzekoa da. Beraz euskal endako buru itxura garbi-garbikoa".

Xabier'ko Frantzisko, euskal ikastolen zaindari, otoiz zerutik gure gazteen alde.

GOIKOETXEA'TAR INAKI